

Irungo  
euskarazko  
hamabostekaria

# Irunero

337

Azaroak 15, 2018

- 2** Irun Atzo Irun Gaur
- 3** Erreportajea: Transizio egoera
- 4-5** Euskaraldia
- 6** Erraldoiak
- 8** Kirolak: Trinketea
- 9** Kirolak: Behobia - Donostia
- 10** ACUBIren kolaborazioa
- 11** Haurren leihoa / Denborapasak
- 12** Euskara Irunen Barrena / Gazteen lanak
- 13** Beti Gazte: Aitor San Martín, idazlea
- 14** Gazte Informazioa
- 15** Agenda



ESTUDIO  
FOTOGRAFIA  
GO  
VER

**OLENTZERO  
SESIÖAK**

**50€**

**AGENDA IREKIA**  
**ESKATU HITZORDUA!**  
943 840 113  
[INFO@FOTOGOVER.COM](mailto:INFO@FOTOGOVER.COM)

## Prudencia Arbide Zobelzu



Ongilea. Irunen jaio zen 1865 urtean eta Amerikara emigratutako senide batek utzitako herentziari esker, aberats bihurtu zen. Horren ondorioz, Irun eta Hondarribiko baserri ugarietako jabea izatera iritsi zen, Argentinan hainbat etxalde izateaz gain.

Udal Ospitalerako garrantzitsuak izan ziren dohaintza asko egin zituen eta jende txiroa laguntzeko lan handia egin zuen. Bere ondare ezagunena Irungo "El Pilar" ikastetxearen fundazioa izan zen, 1925 urtean eraikia zena. 1936 urtean Gerra Zibilaren ondorioz ikastetxearen eraikina erabat suntsiturik geratu zenean, eraikinaren berreikuntzarako lanean jarraitu zuen Prudencia Arbide.

1949 urtean Irungo Udalak omenaldia egin zion eta "Hiriko alaba kutuna" titulua eman zioten. Era beren, bere izena ipini zioten ikastetxearen inguruko kale bati. 1960 urteko urtarrilean zendu zen Prudencia Arbide Zobelzu.

**Iturria: Agustin Morate.**  
*Irun y sus gentes.*

## IRUNERO

**Erredakzioa eta maketazioa:**

Joseba Arozena  
Ainara Berges

**Publizitatea:**

Amaia Terrazas  
(amaia@irunero.eus)  
Ion Otxoa  
(ion@irunero.eus)

**Diseinua eraberritzea:**

Andrea Gomez Arocena

**Argitaratzailea:**

837 comunicación y publicidad S.L  
www.837comunicacion.com

**ISSN:**

1134-0606

**Lege gordailua:** SS-230-94

**Tel:** 943 04 20 52

**Wegunea:** irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)  
diruz lagundua:



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



# Mugek oztopatutako etorkizunaren bila

Trantsizio egoeran dauden migratzaileak iristen dira egunero Irunera



Udatik ona, etengabekoa bihurtu da Irunera iristen diren migratzaileen fluxua. Frantziako poliziaren kanporaketek eta inguruko mugetako kontrolen areagotzeak bi herrialdeen arteko muga zeharkatzea oztopatzen diete. Ondorioz, trantsizio egoeran dauden migratzaileak Irunen harrapatuak gelditzen dira, ez aurrera ez atzera.

**“Berotasuna eskaini eta berriro pertsona senti daitezten lagundu nahi diegu”**

Amaia Oca, Irungo Harrera Sareko Boluntarioa

Gauzak horrela, uztaileko hilabetearen hasieran sortu zen Irungo Harrera Sarea hirira iristen diren migratzaileak laguntzeko. Hasieran, La Kaxita gaztetxean elkartzen baziren ere, azken hilabetearen San Juan plazara mugitu dute topagunea. Udaltearearen parean, “Harrera duina eta integrala” eskatzen dituen pankartaren alboan, migratzailei informazio praktikoa eskaintzen diete, haien egoera ezagutzera ematen duten bitartean.

Amaia Oca eta Gerar Carrere San Juan plazako topaguneko boluntarioak dira. Amaia Oca azaldu duenez Irunera iristen diren pertsonen kopurua aldakorra den arren, une honetan, 80 migratzaile inguru daude bertan. Kasu bakoitza ezberdina bada ere, orokorrean, gizon gazteak dira, Ginea, Mali edo Boli Kostatik etorritakoak eta Frantzia da haien helmuga nagusia. Boluntarioei dagokienez, Gerar Carrerek azaldu du, “plazan informazio puntua jarri genuenetik jende gehiago hurbildu da”.

Instituzioek migratzaileei lo egin eta jateko baliabideak eskeintzen dizkiete. Hortaz gain, azaroko hilabetearen hasieratik Martindozeneako Aterpetxearen ordute-

gia zabaldu da eta Neguko Plana martxan jarri da, Martindozeneako baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak bertan jasotzeko. Amaia Oca azaldu du, premiazko behar gehienak asetzen diren arren, instituzioak betetzen ez dituzten beharrak

**“Plazan informazio puntua jarri genuenetik jende gehiago hurbildu da”**

Gerar Carrere, Irungo Harrera Sareko boluntarioa

asetzen saiatzen dira Harrera Sarean. “Berotasuna eskaini eta berriro pertsona senti daitezten lagundu nahi diegu”, azaldu du Amaia Oca boluntarioak

**Laguntzeko aukera edonoren esku**

Informazioa emateaz gain, arropa banatzeko zerbitzua kudeatzen dute Harrera Sarean. Astearte eta ostegunetan, 17:00etatik 19:00etara arropa jasotzen dute Kale Nagusiko 14. zenbakiko lokalean. Taila txikiak neguko arropa, 39tik 44ra bitarteko oinetakoak eta motxila txikiak behar dituzte, batez ere. Hortaz gain, mugikor zaharrak jasotzeko premia handia dutela adierazi dute boluntarioek, izan ere, migratzaileentzako funtsezkoak dira haien senideekin komunikatzeko.

**Olaizola**

Immobiliaria agentzia

- ✓ Salmenta-Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585  
[info@inmobiliariaolaizola.com](mailto:info@inmobiliariaolaizola.com)  
[www.inmobiliariaolaizola.com](http://www.inmobiliariaolaizola.com)

# “Euskaraldia” ate joka

Azaroaren 12tik 22ra jaso ahalko dira ariketa sozialean parte hartzeko txapak



Egun gutxi barru, azaroaren 23tik abenduaren 3ra, Irungo hiria Euskaraldia ariketan sozialean murgilduko da. Azaroaren 7an eta 10ean formazio saioak egin ziren Palmera Montero gunean. Hortaz gain, Euskal Herri osoko hiri eta herrietan egingo den ariketa sozialean parte hartzeko txapak azaroaren 12tik 22ra jaso ahalko dira hiriko puntu ezberdinetan.

Azaroaren 12tik 22ra egongo da Euskaraldian parte hartuko duten pertsonen rolak identifikatzen dituzten txapak jasotzeko aukera. Astelehenetik ostiralera goizeko

9:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara Urdanibia plazan kokatutako Irungo Udal Euskaltegia jaso ahalko dira txapa horiek. Azaroaren 17 eta 18an, berriz, parte-hartzaileek egun osoan zehar jaso ahalko dituzte haien txapak San Juan plazan.

Aipatutako puntuetan txapaz jasotzeaz gain, ariketan izena emateko aukera izango dute interesatuak txapak banatzeko antolatutako diren egun horietan zehar. Hortaz gain, internet bidez “izenematea.euskaraldia.eus” webgunean edonoiz eman daiteke izena. Izen-ematea paperean egin nahiko balitz, berriz, hiriko

puntu ezberdinetan banatu diren izen-emate orriak HAZ bulegoan entregatuta egin ahalko da ere.

## Formazio-saioak

Azaroaren 7an eta 10ean Euskaraldian parte hartuko duten hiritarrentzako formazio saioak antolatu ziren Palmera Montero gunean. Hautatuko rolaren arabera formazio-saio bereziak eskaini zituzten, Ahobizi eta Belarriprestek jarraitu beharreko argibideak eta gomendioak emateko. Formazio saioetan, informazioa eskaintzeaz gain, bertaratutakoek Euskaraldiaren inguruko zalantzak argitu eta euskararen erabilerarekin loturiko ari-

keta praktikoetan parte hartzeko aukera izan zuten.

## Rolen desoreka

Urriaren amaieran bildutako datuen arabera, Euskaraldiak jada 1.000 izen-emateak gairitu zituen Irunen. Lehen izen-emate datuak bildu ostean ariketa sozialaren barneko bi rolen artean desoreka nabaria antzematen da. Izan ere, izen-ematea egin dutenen %80ak Ahobizi rola hautatu du, %20ak Belarriprest rola aukeratu duen bitartean. Antolakuntzatik Belarriprest moduan aritu daitezkeen irundarrak ekimenean parte hartzera animatzen dituzte.

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



Meaka auzoa, 9 - 20305 IRUN  
Tel.: 943 841 964



FELIX MANSO IBARLA JATETXEA



info@felixmanso.com  
www.felixmanso.com

# Aurreiritziak baztertu eta euskararekiko ohiturak aldatzeko aukera

Ixiar Ezeiza eta Miren Garbizuk Euskaraldiaren barnean Ahobizi rola hautatu dute eta azaroaren 10eko formazio saioan parte hartu zuten.



lako eta kasu askotan egia da. Hala ere, Euskaraldia ekintza folkloriko batean bihurtzeko beldurra daukat. Izan ere, euskara ez da bitrina batean jartzekoa; bizi eta erabili behar den zerbait baizik.

**Zein rol hautatu duzue Euskaraldian parte hartzeko?**

**Miren:** Ahobizi. Euskaraz bizi eta ahalik eta esparru zabalenean erabiltzea gustatuko litzaidakeelako. Beste hizkuntzen aurrean euskara hautatzeko apustua egin behar dugula uste dut.

**Ixiar:** Ni ere Ahobizi izango naiz eta nire bizitzako baldintzak egokiak direlako hautatu dut rol hau. Bestetik, horrela jokatu izan dudalako oran arte nire bizitzan eta orain arte egiten dudan zerbaiti txapabat jartzea izango delako, besterik ez.

**“Euskaraz bizi eta ahalik eta esparru zabalenean erabiltzea gustatuko litzaidake”**

Miren Garbizu, Ahobizia

**Nola azalduko zenukete euskararekin duzuen harremana?**

**Miren:** Euskaraz mintzatu eta euskaraz bizitzeko helburua daukat. Naizen bezalako naiz euskara daukadalako eta nire gurasoek emandako herentzia onenetakoa dela uste dut.

**Ixiar:** Euskara nire karga genetikoaren barnean doala sentitzen dut. Bestetik, militantzia moduan ulertzen dut, euskararen biziraupena etorkizunean bermatzeko.

**Zergatik erabaki zenuten Euskaraldian parte hartzea?**

**Miren:** Lehen bilerara joan nintzen “Eus-

karaldiaren” inguruan gehiago jakiteko asmoz eta, jendea behar zela ikusi nuen, talde motorrean sartzea erabaki nuen.

**“Euskara ez da bitrina batean jartzekoa; bizi eta erabili behar den zerbait baizik”**

Ixiar Ezeiza, Ahobizia

**Ixiar:** Alabaren lagun baten bitartez izan nuen ekimenaren berri eta, lehen aipaturako militantziaren harira, lehen bilerara laguntzeko asmoz hurbildu nintzen.

**Beharrezkoa ikusten zenuten Irunen Euskaraldia bezalako zerbait egitea?**

**Miren:** Nire ustez euskaldunak gure hizkuntzarekin nahiko zabarrak gara eta etengabe erabiltzeko saiakera egin behar genuke egungo egoera aldatzeko.

**Ixiar:** Orain dela 30 urte inguru katalan batek esan zidan euskaldunok oso autoestimatu baxu dugula, euskara, bazte ere, animaliekin eta umeekin erabiltzen dugu-

**Formazio-saioa zalantzaka argitzeko aproposa iruditzen zaizue?**

**Miren:** Bakoitzak bizitako egoerak eta zalantzak partekatzea ondo egon dela uste dut. Agian, euskara erabiltzerakoan suertatzen diren egoera deserosoei aurre egiteko baliatzen ditugun estrategiak partekatzeari denbora gehiago eskaini behar zaiola esango nuke.

**Ixiar:** Elkar ezagutu eta esperientziak elkar trukatzeko aukera izan dugu, baina, egoera zehatzetan nola erantzun jakiteko jarraibideak eman izana gustatuko litzaidake.

Neumáticos  
**txepetxa**



**NEUMATIKOEN SALMENTAN LIDERRAK,  
AUTO SALMENTAN ETA AUTOEN KONPONKETETAN LIDERRAK**

info@txepetxa.com • Letxunborro Hiribidea, 92, Irun • 943 63 13 99



# 20

ETXEBIZITZA

**LASTER  
ERAIKIKO DIRA**  
**AUKERA  
EZIN HOBEA**



**Irun erdi-erdian**, anbulatorioaren eta Artaleku kiroldegiaren artean, Luis Mariano Plazaren ondoan.

**3 LOGELAKO 20 ETXEBIZITZA KOSTU-PREZIOAN KOOPERATIBA-ERREGIMENEAN**, garaje, trasteleku eta guztiz ekipatutako sukaldeekin.

**Baxu eta atikoek terraza zabal-zabalak dituzte.**

GESTIOA, INFORMAZIOA ETA SALMENTA:



Plaza Luis Mariano, S/N • IRUN (Gipuzkoa)

# 663 904 680

[www.artalekubizigunea.com](http://www.artalekubizigunea.com)

FINANTZIAZIOA:



# Ondare Kultur Elkarteak 6 erraldoi berriak aurkeztu ditu



Ondare Kultur Elkarteak 6 erraldoi berriak aurkeztu ditu. Azaroaren 10ean Amaia Kultur Zentroan egin-dako "Irun, historia erraldoia" ikuskizunean aurkeztu ziren Ondareko erraldoien konpartsa osatuko dituzten sei kide berriak, Irungo historia erreparatu zuen ekitaldi batean.

**"Irun arro sentitu daiteke sei erraldoi berriak eta Ondare elkartea edukitzeaz"**

Juncal Eizaguirre, Kultur arloko ordezkaria

2011 urtean sortu zen Ondare Kultur Elkartea erraldoi eta buruhandien inguruan lan egiteko asmoarekin. Denborak aurrera egin ahala eta, ekintza desberdinetan parte hartu ostean, elkartearen oinarritzko helburua berreskuratu nahi izan dute 6 erraldoi berri hauen bitartez. Juncal Eizaguirre Kultura Arloko ordezkariak azaldu duenez, "Irun arro sentitu daiteke sei erraldoi berriak eta Ondare elkartea edukitzeaz"

Erraldoi berrien sorkuntzarako Irungo historia eta ondarea mantendu eta berreskuratzeari garrantzi

handi eman dio beti Ondare elkarteak. Iñigo Mangas Ondare Kultur Elkarteko kideak adierazi du, "askotan kanpora goaz gauza berriak ezagutzera, etxean daukaguna baloratu gabe".

**"Askotan kanpora goaz gauza berriak ezagutzera, etxean daukaguna baloratu gabe"**

Iñigo Mangas, Ondare Kultur Elkarteko kideak

Hiru tamainetako erraldoiak sortu dituzte. Erraldoi txikien bikotea Iru-gurutzetako meatzaria eta "Chocolates Elgorriaga" fabrikako langileak dira eta 4 urtetik aurrerako haurrek dantzatzeko prestaturik daude. San Martzialetakoa gaiarekin jarraitzeko, erraldoi ertainek atxero eta antortxera bat irudikatzen dituzte eta 13-17 urte bitarteko gazteek dantzatzeko pentsatuak daude. Azkenik, erraldoi handienak trenbide geltokiko burua eta opila eskuan da-

raman amabixia islatzen dituzte eta, haien pisua eta tamaina dela eta, helduek dantzatzeko eraikita daude.

**"Irun, historia erraldoia"**

Azaroaren 11ean Amaia Kultur Zentroan aurkeztu ziren erraldoiak "Irun, historia erraldoia" izeneko ekitaldian. Erraldoiez gain, Irungo historia izan zen ekitaldiko protagonista, erraldoi bakoitzak islatzen duen garaira itzuliz. Izan ere, erraldoi batzuek egun ikus daitezkeen pertsonaiak irudikatzen dituzten arren, beste batzuk aspaldiko graietakoak dira. Ondare elkarteko kideek adierazi dutenez, Irungo Artxiboaren eta Bakarne Atxukarro idazlearen lana ezinbestekoa izan da berreskurapen lana aurrera eramateko.

**Hiri erraldoia**

Ondare Elkarteko Iñigo Mangasek azaldu duenez, datorren urtean Irun Euskadi mailan erraldoi eta buruhandi gehien izango dituen hiria izango da. Izan ere, Ondare, Bidasoa eta Atsegiñako erraldoi eta buruhandiak batuz, 29 erraldoi eta 28 buruhandi izango ditu hiriak. Gainera, Ondareko eskolara hurbiltzen diren haur guztien ondoroiz izen-emateak eten behar izan dituzte. Horregatik, datorren urtera begira, erraldoien familia handitzen jarraitzeko asmoa du Ondare elkarteak, izen-emateak berriro zabaldu eta haur guztiei erraldoiak dantzatzeko aukera eman ahal izateko.



## Irundarrek brontzezko domina eskuratu zuten Bartzelonako Pilota Mundialean



Argazkia: Ramuntxo Trinkete Elkarte

**Gorka Pablos, Ander Monserat eta Aritz Larrarte** Ramuntxo Trinketeko jokalariek, aspalditik Irunen bizi den Sebas Martinez argentinarrarekin, brontzezko domina eskuratu zuten mundialean. Espainiako Trinkete Selekzioarekin jokatu zuten gomazko pilota kategoriaren barnean urriaren 14tik 20ra Bartzelonako Vall d'Hebron-eko frontoi olinpikoetan. Bi urteetako lan gogorraren ostean, irundarrak dominarekin itzuli dira etxera.

**Zein sentsazioarekin itzuli zineten etxera mundiala jokatu ostean?**

**Gorka:** Sentsazioa ona izan zen, domina bat lortzeko helburuarekin joan ginen eta domina lortu genuen. Hala ere, finalean sartzeko zorian egon ginen arren, azkenean ezinezkoa iza zen.

**Ander:** Amorru gehiago ematen du bigarren postua oso hurbil izan geneukalako.

**Pozik zaudete lortutako emaitzekin?**

**Aritz:** Gure helburua finalerdira iristea zen eta dominengatik borrokatzea. Dominak eskuratzea zaila zegoen arren, Mexikoren aurkako partiduan gu finago ibili ginen eta, horri esker, brontzezko domina etxera ekarri genuen.

**Esperientzia garrantzitsua da mundial bat jokatzeko orduan?**

**Gorka:** Bai, aurretik mundialen bat jokatu baduzu giro horretan jokatzera ohiturik zaude. Guk hemen lagunen artean jokatu dugu eta harmailan senideak daude.

**Aritz:** Mundialetan aritu ez arren, partidu garrantzitsuetan aurkari ezezagunen aurka jokatzeko ikasi daiteke ere.

**Zein selekzio izan dituzue aurkari mundialean jokastutako partiduetan?**

**Gorka:** Lehen partidua Argentinaren aurka. Horren ostean, Txile izan genuen

etsai. Finalerdia Frantziaren aurka galdu genuen eta, azkenik, Mexikorekin lehiatu ginen hirugarren postua lortzeko.

**Zein izan da aurkaririk zailena?**

**Gorka:** Argentina maila gorena duen selekzioa da. Izan ere, mundialen historian ez du partidu bat bera ere galdu eta, jakin badakigu, haiek guk baino maila altuagoa dutela.

**Afizioaren babesa iritsi zitzaizuen Bartzelonaraino?**

**Aritz:** Bertara joan zen eta joan ez zen jendearen babesa sentitu genuen. Gainera, partiduak online ikusteko aukera zegoenez, jendeak gertutik jarraitu ahal izan gaitu, nahiz eta partiduak ikusteko sarre-rak segituan agortu ziren.

**Zeintzuk dira zuen hurrengo helburuak?**

**Gorka:** Orain klubak antolatzen duen Txingudi Torneoa jolasten ari gara etxean.

**“Domina bat lortzeko helburuarekin joan ginen eta domina lortu genuen”**

Gorka Pablos, Pilota Mundialeko jokalaria

Nahiz eta maila ofizialekoa ez den, jokari onek jolasten dute bertan eta maila altuko partiduak ikus daitezke bertan.

**Ander:** Gainera, txapelketa honetan errazago zaigu inguruko beste taldeekin kointziditzea, beste partidu batzuetan elkarrekin jokatzeko arazo gehiago izan ohi baititugu.





## Behobia-Donostia lasterketaren 54. edizioak Irungo kaleak zeharkatu zituen azaroaren 11ean



**Behobia-Donostia lasterketaren 54. edizioak Irungo kaleak zeharkatu zituen azaroaren 11ean. Guztira, izena emandako 30.775 korrikalarietatik, 26.027 lasterkari igaro zituzten hiriko kaleak. Jaume Leiva izan zen lasterketako irabazlea, emakumezkoen parte-hartzeak errekorrak hautsi zituen lasterketa batean.**

Jaume Leiva katalana izan ze 54. Behobia-Donostia lasterketako irabazlea, 1 ordu eta 22 segundotako denbora egin ostean. Helmugako lerroa zapaldu zuen bigarren korrikalaria Iraitz Arrospide izan zen 01:01:45 denborarekin eta, hirugarren tokian, Ivan Fernandezek 01:01:54 denborarekin amaitu zuen lasterketa.

Aro Merino kanariarra izan zen helmugara iritsi zen lehen emakumea, 01:09:41ko denbora egin ostean. Me-

rinok bere hirugarren Behobia-Donostia lasterketa irabazteaz gain, emakumezkoen errekorra berria ezartzea lortu zuen azaroaren 11ko lasterketan egindako denborarekin. Bigarrena, Diana Martin (01:10:37) eta, hirugarrena, Alicia Perez (01:14:14) izan ziren. 54. edizioan emakumezkoen parte-hartzea inoiz baino altuagoa izan zen, lasterkarien %24,1a emakumezkoak izan zirelarik.

### Lasterketaren azoka Ficoban

Behobia-Donostia lasterketaren azoka Ficoban egin da aurtun lehenengoz. Azaroaren 9tik 10era lasterketarekin loturiko jarduera, erakusketa eta hitzaldiak izan ziren bertan. "#Irunning-ean aritzen zara?" leloaren azpian antolatua, maratoni-erdiko parte-hartzaileei eta running-aren zaleei zuzenduriko azoka hau. Behobia-Donostia lasterketaren XII. azokak 4.000m<sup>2</sup> zabalera izan du aurtun eta Irun erdialdetik Ficobara iristeko Turismo Trena martxan egon zen azoka egunetan.

### Esperientzia gastronomikoak

Azokaren barnean antolatutako jardueraz gain, hiru esperientzia gastronomikoetan parte hartzeko aukera izan dute Behobia-Donostia lasterketako parte-hartzaileek. Ola Sagardotegian bisita gidatua eta sagardo dastatzea, Bidasoa Basque Breweryn garagardo dastatzea eta Mendibil Ardoteagian itsukako ardo-dastatzean parte hartzeko aukera izan zuten lasterkariak, Irunera etorritako haien lagun edo senideekin batera. Era honetan, lasterketarako indarra hartzeko aprobetxatu zuten probaren aurreko egunetan.

Hortaz gain, Irungo Santiago, Alde Zaharra, San Juan, Zabalza eta Pio XII inguruetako 30 taberna eta jatetxek pintxoak eta edaria 2,50 euroren truke eskaini zituzten. Gainera, Oiaso Erromatar Museoa lasterketaren dortsalarekin hurbildu ziren korrikalariak %20ko deskontua izan zuten museorako sarreraren prezioan.

# Etxez etxeko salmenten arriskuak

ACUBI kontsumitzaile elkartearen kolaborazioa



## Era honetako erosketak egiteko gomendioak:

1. Ez erosi era konpulsiboan. Hausnartu produktuari buruz: benetan behar dugun eta erosi nahi dugun ala ez.
2. Gomendagarria da leku finkoetan edo maiztasun jakin batekin saltzen dutenei erostea, edozein arazoren aurrean bitartekotza errazagoa izango baita.
3. Kontratua sinatu aurretik, ziurtatu produktuak saltzaileak edo enpresak deskribatzen dituen baldintzak betetzen dituela.
4. Ondo irakurri kontratua sinatu aurretik eta legeak finkatzen dituen baldintzak betetzen dituela ziurtatu. Ez sinatu ulertzen ez duzun ezer.
5. Ez fidatu kontratuan helbide bezala posta kutxa soil bat bakarrik agertzen duen saltzaileez.
6. Egiaztatu noren esku dauden produktuaren bidalketa-gastuak.
7. Osasun gaitzak sendatzearen promesa egiten dituzten mirarizko produktuekin ez fidatu.
8. Etxera saltzera datozkigunean, ondo ziurtatu saltzera etorri zaigun pertsonaren nor-tasuna, eta ordezkatzeko duen enpresarentzat egiaz lan egiten duela egiaztatu.

Kontsumo gaien inguruko galdera edo zalantzarik izatekotan, gogoratu ACUBIren aholkularitza zerbitzua eskura dago ostegunero 10:00etatik 13:00ak arte Hondarribiko Kasino Zaharrean.



Gai berria ez den arren, azkenaldian etxean, bertan egiten dizkiguten salmenten inguruko kontsultek gora egin dute. Legeak honelako salmenten aurrean kontsumitzaileak babesteko neurri batzuk ezartzen ditu, gehiegikeriazko praktika komertzialak ekiditen saiatzeko.

Hala ere, honelako erosketak egitekoan gogoan izan behar da kontratua beti idatziz sinatu behar dela, saltzaileak zein kontsumitzaileak sinatu beharko dutela kontratua eta data kontsumitzaileak eskuz idatzi beharko duela kontratua sinatzerakoan.

### Uko-egite eskubidea

Hortaz gain, kontratuarekin batera uko-egite dokumentua eman behar zaio erosleari, hizki nabarmenekin uko-egite eskubideari buruzko informazio zehatza eta ulergarria emateko. Uko-egite eskubideak 14 egun naturaletako epea dauka eta inolako zigor edo penalizazioarik gabe eta arrazoiak justifikatzeko beharrik gabe, establezimendu komertzialetatik kanpo edo distantzian egindako kontratua eraginik gabe uzteko kontsumitzaileak duen eskubidea da.

# Irungo La Salle LH1



URTE BERRIKO DRAGOIA  
 Behin batean, Txinako legoaldean, Niam izeneko dragoi erraldoi bat zegoen. Urte osoa ur azpian ematen zuen. Urte zohar gabean haserri biziari ateratzen zori. Dena akabatu zuen. Urteko urteko egunian, horriakako biztanleek beren gauzak kutunenak hartzen zituzten eta inguruko mendirik altuenara igotzen ziren. Urte hartan, agure zahar bat hantxi pasatu zen eta esan zien:  
 - Eze zaitete Kozkater Niamengatik, ezustekoa bat emanga diat. Baina ez zihuen Mantentzeak.  
 Niam atsekuluan, prestatulako putardak sortu hazi zu eman zian eta Niamen gausteko galantia eman zian eta ez zen berria oinar. Orain ihesi isudikalean dute putardak hantxi.

# Denborapasak

## Zazpi kolore

Z	R	L	L	O	L	M	H	R	S	E	I	X	A	Y	K	V
R	G	Z	C	V	A	G	B	O	I	A	J	Q	J	W	H	H
S	Q	R	W	E	R	O	M	E	R	A	E	N	G	H	J	E
A	A	U	D	Z	A	R	T	U	L	I	Q	N	P	A	J	I
X	E	O	J	M	N	R	E	O	A	T	A	Q	F	J	A	J
W	X	E	P	K	J	I	H	R	Y	U	Z	W	U	O	C	D
C	Y	N	A	I	A	A	F	O	E	Y	A	E	R	U	T	
E	M	C	E	W	S	X	B	U	S	Y	J	C	Z	P	R	V
A	F	I	O	X	W	Z	I	E	M	E	J	X	I	I	W	X
U	T	B	W	I	B	H	O	C	R	G	W	D	E	U	Y	Y
R	T	Y	W	A	P	F	N	E	S	D	P	M	H	V	G	X
D	O	A	H	E	M	O	R	E	A	A	E	C	M	K	D	E
I	O	U	E	P	L	P	Y	Y	C	H	T	A	J	F	T	E
N	B	A	D	I	F	W	G	O	S	A	R	X	A	E	H	N
A	Y	E	H	V	G	C	G	M	Y	B	E	I	V	D	I	P
V	H	X	Y	Q	Y	C	Y	S	F	P	Z	R	B	Y	Z	C
B	T	O	B	K	A	J	M	O	I	G	I	Y	M	E	I	W

			7		2	4				
8	9			3					4	
4	2					9			6	
2				6		7				8
3					9			6		
				2		3			7	9
9			2		4					
		5	6			8	9			
7	4									

Morea, horia, beltza, laranja, urdina, gorria, berdea

# Euskaraz, Irunen barrena

## Donostiarrik ez da zeruan

Santa sekulan  
ezta sartu  
Donostiarrik  
zeruan,  
nonbait ere ez tute  
meritturik  
irabazi munduan,  
danborra eta  
iriyarekiñ  
bizi dira  
aien biyan onduan

S.R.A. andreari jaso (1958ko Abenduan)  
(El Bidasoa, 1959-VI-20)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga  
Euskaraz, Irunen barrena

## Toki Alai DBH

### AUBIXA BARNETEGIA

2017ko azaroaren lehen ordu eta erdiko bidala egin ondoren, Elgotabarreko "Aubixa" barnetegira ailegatu ginen.

1. egunean, maletak hustu eta gero, monitoreek barnetegiko funtzionamendu eta antolaketa azaldu zituzten. Arratsaldean, bazkai bikaina izan ondoren, egongela erakutsi zuten; han, jokoak, musika jartzeko aparatua, DVDa eta marrazteko tokiak zeuden. Azken honetan, paper handi bat geneukan, bertan monitoreek inprimatutako argazkiak itxasteko eta marrazteko. Ondoren, afaldu, jolasu eta lozara joan ginen, nahiz eta batzuek hitz egiten jarraitu zuten.

Hurrengo goizean San Pedroa joan ginen eta Altxorraren bila aritu ginen. Azkenean, altxorra Aubixan zegoen eta egun hartan zegoen eguraldiarekin gaitzak, gaitzandiak, lea... bustu genituen aztertzeko. Altxorrak mineralak eta txokolatzeko txarponak zituen.

Arratsaldean, berriz, etxe berruan egon ginen joko batzuetara jolastan. Gainera, egongelan abestiak jain eta danok alkarakin abestu genituen. Galdara ez zebilela esan ziguten eta dutxelan ur berorik ez zegoela. Ez dakit nola baina, hodorria antzeko bezuekin, gola batorra ur berora eramasa tortu zuten eta bi taldetan banatu ginen: neskek gelaxa hornetan eta mutilak Marixuren (abisko jabearen) bainugelan. Zorionez, egun hornetan oso neska guxi dutxatu ginen eta ez genuen danbora gehiegirik behar izan. Arazo hau konpondu eta gero, afaldu, jolasu eta intsa joan ginen.

Hirugarren egunean, hau da, asteazkenean, Kalamus mendira joan ginen. Barnetegitik ateratzeko leino handia zegoen eta eguna hotza, baina argitzari izugentziko paisaia ikusi ahal izan genuen. Zoritzarekin, geluterra iritsi ginenean, 1. mailako bi ikasle eron ziren. Batzuk arratsaldean utzi egin zion baina berehala pasa egin zitzaion. Besteak beiriz, belduna urratu eta min hartu zuen. Han, galurrian, joko batzuk egin genituen. Jaitzi eta bazkaldu ondoren, abestu genituen hango monitore batek eskumuturrekoak eta beira-alezko audiak egiteko modu interesgarri bat erakutsi zigun. Egun honetan, neskek Marixuren bainugelan dutxatu ginen baina mutilak gaitz bukatu zuten: neska batzuk gelaxora joan ziren. Beste lagun bat eta ni dutxan ginele, argiak piztu eta itzalzen aritu ziren guk oihu eta barre egiten genituen bitartean. Ondoren, afaldu, eskumuturreko eta rudixkoak egin eta ohera joan ginen.

Azken eguna iritsi zen eta bidai batzuk ikusi genituen, hain artsan, lau egun hauetan zehar guk egindako argazkiak bitzen zituen bidai musketua zegoen. Maletak erdi-eginek zaudela, gola batorra alkaru genituen eta eta banaka-banaka bertan pasatuko egunen inguruan gauza politak esaten aritu ginen sidi egiteko ordua iritsi arte.

Bukatzean, maletak itxi eta Irunera bueltatu ginen.



Andrea Vñuela

Toki Alai DBH



# bideosare

*Bideoak zure erara!*



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com



AITOR SAN MARTIN, idazlea:

## “Idazten urteak daramatzadan arren, argitaratu dudan lehen liburua da hau”



Aitor San Martin gazte irundarrak bere lehen nobela kaleratu berri du. “Asesino entre pupitres” izenburua duen nobela beltz honek Irungo Txingudi Ikastolan jazotako hilketen inguruko istorio misteriotsua kontatzen du. Hilketak eta gertakari misteriotsuez gain, eskola jazarpena eta indarkeria matxista bezlako gaiak jorratzen ditu liburua.

Azaroaren 8an Irungo Udal Liburutegian aurkeztu zuen Aitor San Martinek, senide eta lagunen babespean, bere lehen nobela. “Idazten urteak daramatzadan arren, argitaratu dudan lehen liburua da hau”, azaldu du idazle irundarrak. 18 urte inguru zeuzkanean hasi zen “Asesino entre pupitres” nobelaren lehen zertzeladak paperean idazten. Aitor San Martinek azaldu duenez, “medikuntza ikasketen artean libre izandako momentuak aprobetxatu ditut nobela idazteko”.

Gorka Arnaiz izeneko 16 urteko ikastolako ikaslea da San Martinen lehen nobela honetako protagonista. Hasieran Gorkak bizimodu arrunta duela iruditu arren, istorioak aurrera egin ahala, bat-batean, ikastetxean gertatutako eraso batzuen erdian murgildurik aurkituko da. Ikaslea Ertzaintzarekin elkarlanean arituko da eleberrian zehar ikastolan jazotako argitzen saiatzeko. Erasoz gain, liburua eskola jazarpena edo indarkeria matxista bezalako bestelako gaiak ere landu ditu idazleak.

Aitor San Martinek onartu duenez, nobela beltzaren generoaren barnean kokatzen diren eleberrien irakurle amorratua da. Agatha Christie eta genero bera lantzen dituzte beste egileen liburuetan irakurritakoa erreferente moduan erabili du idazleak bere lehen lana idazte-

**“Medikuntza ikasketen artean libre izandako momentuak aprobetxatu ditut nobela idazteko”**

**“Istorioak errealitate puntu bat edukitzea garrantzitsua iruditzen zait irakurlea istorioan murgildu dadin”**


Aitor San Martin, idazlea

rako orduan. Hortaz gain, bere lehen liburua argitaratu ahal izateko, Aitor San Martinek ezinbesteko izan du Se-leer argitaletxeak eskaini dion konfiantza eta laguntza guztia. Lehen lana argitaratu berri duen arren, bigarren liburu baterako nobelako protagonistak eman dezakeen jokoan pentsatzen ari da jada idazlea.

#### Etxera ekarritako istorioa

Aitor San Martinek azaldu duenez, nobela bat idaztea erabakitzen duzunean pertsonaiak eta horien rola erabakitzea da egin beharreko lehen gauza. Han-hemenka sortutako ideiak paperean bildu ostean lortu zuen idazle gazteak istorioa pixkanaka osatzea.

Hasieratik bukaeraraino asmatutako istorioarentzako kokapena bilatzeko ordua iritsi zenean, ordea, gertaerak ondo baino hobeto ezagutzen dituen lekuetan kokatzea erabaki zuen: Irunen eta Txingudi Ikastolan. Aitor San Martinek azaldu duenez, “istorioak errealitate puntu bat edukitzea garrantzitsua iruditzen zait irakurlea istorioan murgildu dadin”. Orain irakurleen eskuetan egongo da ikastolako korridoreetan jazotako gertaera misteriotsuak argitzeko aukera.





- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: [igazte@irun.org](mailto:igazte@irun.org)
- Web gunean: [www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte)
- WhatsApp bidez: 607 771 173

## Gazte ARTEan: "IZAN YOUTUBER!!!"

Azaroaren 17an, larunbatean, Martindozenea Gaztelekuan "Izan YouTuber!!!" jardunaldiaren barnean jolasak, challengeak, bideo edizio eta muntai tekniken inguruko ikastaroak Aizea Gallagher eta Iban Garcia yotuberrekin. Jardunaldian parte hartzeko plazak mugatuak izango dira, beraz, beharrezkoa izango da aurretik izen-emate orria aurkeztea. Bazkaria etetik eraman behar da.

**Lekua:** Martindozenea Gaztelekuan.

**Prezioa:** Dohakoa.

**Ordutegia:** 10:00etatik 20:00etara.

**Izen-emate orria aurkezteko tokiak:** Martindozenea Gaztelekuan edo CBA Udal Liburutegian.



## Nazioarteko Mugikortasun programaren batean egon zara eta sariak lortu nahi di-

Ikasten, lanean, boluntariotzan edo Gazte Elkartruke batean parte hartu duten gazteek sariak irabazteko aukera izango dute, haien esperientziak partekatuz gero. Eurodesk-ek prestatutako galdeketa erantzun behar da horretarako. Nazioarteko Mugikortasuna eta gazteentzako informazioa hobetzen laguntzeko erabiliko dira bildutako esperientziak.

**Norentzat:** 13 eta 35 urte bitarteko gazteentzat.

**Sariak:** Amazon, Netflix edo iTunes-erako opari-txartelak.

**Inkestarako lotura:** Igazteren web-gunean.

## FIFA 19 txapelketa Martindozenea Gaztelekuan

Irungo Martindozenea Gaztelekuan FIFA 19 txapelketa antolatuta dute azaroaren 30 eta abenduaren 1erako. Izen-ematea aurretiaz egin behar da Gaztelekuan, izan ere, txapelketan parte hartzeko plazak mugatuak izango baitira.

**Adina:** 12-17 urte bitarteko gazteei zuzenduriko ekintza.

**Data:** Azaroaren 30ean, ostirala, eta abenduaren 1ean, larunbata.

**Ordutegia:** 17:30etatik 21:00etara.

**Saria:** Play Station 4a eta FIFA 19 jolasa.



## MOLDATU HOME

INMOBILIARIA  
HOME STAGING



### MOLDATU HOME: ZURE ETXEBIZITZA SALTZEKO MODU BERRIA

Etxe bikoitzo desberdina da, kontatu lezaguzu nolako den zuri!

Higaztaren zerbitzuen kontzeptu berri bat surkatzeko zuzen, etxebizitzaren alorrean oinarrituta dagoena, etxebizitzaren hobetzeri egoteko.

BIZI-ERAKAK saldu nahi ditugu, ez soilik metro koratuek.

Inmobiliarie Urtzi Gologana eta Encarni Martínez Home Staging enpresak elkarrekin, gure amekuratuak, esperientziak eta gahien bitartekoz, gauzak ondo egiteko gogoa uzten dituzte. etxebizitzaren salmenta / alokairu zerbitzu integratu eskaintzeko Home Staging teknikan. Etxebizitzak saltzeko modu eraginkorrena baina, erostaren azalpen jartzen gaitelako.

<https://www.inmobiliariaurtzilogogana.com/>

661875785  
(Urtzi)

656748202  
(Encarni)

Irungo kasinoren atzean hurrengo aurki gaitzakezu, Jose Ramon Agirretxe A kale Jauna 1 plaza.

<https://encamimartinez.es/>

# Irailak

**16tik  
aurrea**

**17**

**21**

**XXIX. Irun Hiria  
Argazki Lehia-  
keta**

**Zer:** IAE elkarteak 2018an antolatutako lehiaketara aurkeztutako lan hautatuen erakusketa.

**Non:** Amaia Kultur Zentroko erakusketa aretoan.

**Ordutegia:**  
Astelehenetik larunbatera  
18:00etatik 21:00etara.  
Igande eta jaiegunetan  
11:30etatik 13:30etara.

**Prezioa:** Doako sarrera.

**Irun Hiria Musika  
Bandaren Kont-  
zertua**

**Zer:** Santa Zezilia ospatzeko kontzertua eskainiko du bandak.

**Non:** Amaia Kultur Zentroan.

**Ordua:** 19:00etan.

**Sarrera:** Sarrera gonbidapenarekin.

**Oharra:** Sarrerek Turismo Bulegoan edo, kontzertuaren egunean, Amaia KZko leihatilan 18:30etatik aurrera.

**Ipuin kontalaria**

**Zer:** "Sar dadila kalabazan" liburuaren kontaketa Eneko Haritzaren eskutik.

**Non:** CBA Udal Liburutegian.

**Ordua:** 17:30etan.

**Sarrera:** Doakoa.



**Denborapasen emaitzak**

Z	R	L	L	O	E	M	H	R	S	E	I	X	A	Y	K	V
R	G	Z	G	V	A	G	B	O	N	A	J	O	J	W	H	H
S	Q	R	W	E	R	D	M	E	R	A	E	N	G	H	J	E
A	A	U	Z	A	R	T	U	L	I	Q	N	P	A	J	I	
X	E	O	J	M	N	R	E	O	A	T	A	O	F	J	A	J
W	X	E	P	K	J	I	H	R	Y	U	Z	W	U	O	C	O
C	Y	N	A	I	A	A	F	O	D	E	Y	A	E	R	U	T
E	M	C	E	W	E	X	B	U	S	Y	J	C	Z	P	R	V
A	F	I	O	X	W	Z	I	E	M	E	J	X	I	I	W	X
U	T	B	W	I	G	H	O	O	R	G	W	D	E	U	Y	Y
R	T	Y	W	A	P	F	N	E	S	D	P	M	H	V	G	X
D	O	A	H	E	M	O	R	E	A	E	C	M	K	D	E	
I	O	J	E	P	L	P	Y	C	H	T	A	J	F	T	E	
N	B	A	D	I	F	W	O	S	A	R	X	A	E	H	N	
A	Y	E	H	V	G	C	G	M	Y	B	E	I	V	D	I	P
V	H	X	Y	Q	Y	C	Y	S	F	P	Z	R	B	Y	Z	C
B	T	O	B	K	A	J	M	O	I	G	I	Y	M	E	I	W

5	3	7	1	2	4	8	9	6
8	9	1	3	8	5	2	4	7
4	2	5	8	7	9	3	6	1
2	1	9	6	5	7	4	3	8
3	7	8	4	9	1	6	5	2
9	6	4	2	8	3	1	7	9
9	8	2	5	4	6	7	1	3
1	5	8	7	3	8	9	2	4
7	4	3	9	1	2	5	8	6

**26**

**Sareuska  
Mintzodromoa**

**Zer:** Euskaraldia eta Euskararen Nazioarteko Egunearen harira, Mintzodromoaren V. edizioa.

**Non:** Mendibil Merkataritza Guneko jatetxe eta zinemen solairuan.

**Ordua:** 10:00etatik 12:00etara.

**Sarrera:** Librea, aurretiazko izen-ematearekin.

**27-28**

**Go Mobility**

**Zer:** Go Mobility Mugikortasun Iraunkorraren Azoka.

**Non:** Ficoba.

**Ordua:** 9:30etatik 18:00etara.

**Sarrera:** Doan, akreditazioarekin.

**Informazio gehiago:**  
<http://gomobility.eus/es/>

**29**

**Zure abenturaren bila**

**Zer:** Donostiako Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloa

**Non:** Amaia Kultur Zentroan.

**Ordua:** 19:30etatik 21:00etara.

**Sarrera:** Sarrera librea.

**Iraupena:** 90 minutu.



Era askotariko tailerrak eskaintzen ditu astero Caser Residencialek. Tailerrak Caser Residencialek Anaka eta Betharramen dauzkan egoitzetan egin ohi dira eta egoiliarrek asko disfrutatzen dute tailer hauen bitartez proposatzen zaizkien jarduerekin.

Musika-terapiaren bitartez bi eratako tailerrak egiten dituzte: Musika-terapia Ludikoa eta Musika-terapia Funtzionala. Musika-terapia ludikoko tailerrak oso aktiboak dira eta, bertan, abesti ezberdinak gogoratu eta abesteko ariketak egiten dira, perkusiozko instrumentuekin abestiak jarraituz. Musika-terapia funtzionalako tailerrak, berriz, talde murriztuetan egiten dira, haien premietara egokituz, egoiliarrek musikaren erritmoa jarraitzen dute gorputz atal ezberdinak erabiliz. Abenduraren 19an Musika-terapia funtzionalarekin loturiko kontzertua egingo dute Anakako egoitzan.

Joan den urtean Anakako egoitzan egindako Arte-terapia tailerren arrakasta ikusita, aurtan bi egoitzetan martxan dago tailer mota hau. Marte elkarrearen laguntzarekin, egoiliarrek haien sormen artistikoa garatzen dute. Joan den urtean koadroak pintatu zituzten eta orain buztina lantzen hasiko dira.

Bestetik, egoitzetako psikologoek errealitate birtualeko tailerrak antolatzen dituzte erlaxazioa eta garapen kognitiboa lantzeko. Betaurrekoen bitartez, egoiliarrek nekazal

inguru, museo, tailer eta pasai nazional eta internazionalak ikusten dituzte. Erlaxazio tailerretan, berriz, fisioterapeuten laguntzarekin, egoiliarrek 5 zentzumenak lantzen dituzte masaje, bideo eta material ezberdinen bitartez.

Anakako egoitzan San Vicente Ikastetxe haurrekin Belaunaldien arteko tailerra egiten dute. Ikasleek egoiliarrekin eskolan landutako baloreen inguruan mintzatzen dira. Itzaropena izan da aurtan landutako balorea.

#### Bestelako aktibitateak

Aipatutako tailerrez gain, bestelako aktibitateak ere egiten dituzte. Esaterako, terapeuta eta animatzaileekin estimulazio fisiko eta kognitiborako ariketak egiten dituzte. Hortaz gain, noizbehinka, bestelako elkarrean kolaborazioari esker, ekintza bereziak egiten dituzte. Joan den hilabetean Abarka GKEko "Lolipops payasa trotamundos" pailazoaren tailerra izan zuten. Azaroan, berriz, Aquariumeko langileekin arrainen mundua jorratzeko tailerrak egingo dituzte bi egoitzetan.

Hortaz gain, abenduan Anako egoitzaren urteurrena ospatzeko ekintza bereziak antolatuko dituzte. Caser Residencialetik Gabonak ospatzeko antolatuko diren ekintzetan parte hartzeko gonbidapena luzatzen zaie irundar eta hondarribiar guztiei.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM